

## **651 EREDUA (PDF BETEGARRIA) BETETZEKO JARRAIBIDEAK**

### **DOHAINZA ESKUDIRUTAN**

#### **URRATSAK**

1. **Dohaintzaren kontratua bete.** Esteka honetan dagoen eredia erabil dezakezu:  
Dohaintzaren kontratua
2. **PDF betegarria bete** eta 3 kopia inprimatu.
3. **Zerga ordaindu** edozein banku laguntzailetan, 651 inprimakia(k) behar bezala beteta.
4. **Hitzordua eskatu Ogasunaren bulego batera joateko.**
  - a. 945 18 15 55 telefonora deituta
  - b. Esteka honen bidez: Hitzordua
5. Dokumentazio osoa **aurkeztu** Oinordetzen eta Dohaintzen Atalean.
  - a. **PDF betegarria**, ondo beteta (2 kopia bakoitzeko)
    - i. Aurkezpen orria
    - ii. Ondasun higigarrien zerrenda
    - iii. Autolikidazioa, ordainduta
  - b. Dohaintza kontratua, beteta (jatorrizkoa eta kopia).
  - c. **Banku transferentziaren** frogagarria, jatorrizkoa eta kopia. Bertan, transferentzia egiten den kontuaren titularraren eta helmugako kontuaren titularraren izen osoa agertu behar da.
  - d. **Dohaintza hartzailearen** errolda ziurtagiria, azken 5 urteetakoak.
    - i. Ez da beharrezkoa Gasteizen, Laudion edo Amurrion biziz gero.
  - e. Dohaintza emaile(ar)en eta dohaintza hartzaile(ar)en arteko **ahaidetasuna** egiaztatzen duen agiria.
  - f. Dohaintza hartzailearen **desgaitasunaren / mendekotasunaren** graduaren onarpenaren ziurtagiria.
    - i. Aurrekoen/ondorengoen artean edo ezkontideen artean egiten EZ diren dohaintzen kasuan soilik.
  - g. Dohaintza emaileen eta dohaintza hartzaileen **NANen** kopiak.

#### **EREDU HAU AURKEZTU BEHAR DUTENAK**

Subjektu pasiboa (zerga ordaindu behar duen pertsona) dohaintza hartzailea da (dohaintza jasotzen duena).

Dohaintza hartzailearen ohiko egoitza Araban badago sortzapen egunean (dohaintza egiten den egunean), autolikidazioa Araban aurkeztu behar da.

Hala ere, baldin eta sortzapenaren aurreko bost urteetan dohaintza hartzailea lurralde erkidean (beste autonomia erkidegoren batean) egon bada egun gehienetan, egon den autonomia erkidegoko araudia aplikatuko da.

## **AURKEZPEN ORRIA**

### **AURKEZLEA**

Eremu honetan dokumentua aurkezten duenaren datuak eman behar dira.

### **DOKUMENTUAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK**

Dohaintzaren kontratua noiz (data) eta non (tokia eta probintzia) sinatu den zehaztu behar da.

### **DOHANTZEN KOPURUA**

Eremu honetan zehaztu behar da zenbat autolikidazio aurkezten diren egindako dohaintzaren ondorioz.

Dokumentu batean zenbait dohaintza agertzen badira (hau da, zenbait dohaintza emaile edo hartzaile badaude), autolikidazio bat aurkeztu behar da haietako bakoitzeko.

Adibidea

Arantza andreak eta Jaime jaunak diru kopuru bana eman diote dohaintza modura beren seme Aitorri eta alaba Luisari.

Lau autolikidazio aurkeztu behar dira:

- Aitor hartzailea / Arantza emailea - Aitor hartzailea / Jaime emailea
- Luisa hartzailea / Arantza emailea
- Luisa hartzailea / Jaime emailea

## **ONDASUN HIGIGARRIEN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA**

Aurkezten den autolikidazioak ondasun zerrenda bat eduki behar du erantsita.

### **DOHANTZA HARTZAILEA – DOHANTZA EMAILEA**

Eranskinari dagokion autolikidazioko dohaintza hartzailearen eta dohaintza emailearen datuak ezarri behar dira.

### **IRABAZPIDEZKO BALIO AITORTUA**

Emaileak hartzaileari dohaintzan emandako guztirako balioa zehaztu behar da. Lauki hau erabili behar da dohaintzaren zenbatekoa irabazpidezkoa izanez gero.

### **BALIO PRIBATIBO AITORTUA**

Emaileak hartzaileari dohaintzan ematen dion guztirako balioa zehaztu behar da. Lauki hau erabili behar da dohaintzaren zenbatekoa pribatiboa izanez gero.

### **JABETZA OSOA**

Markatu "Jabetza osoa" laukia.

## **AUTOLIKIDAZIOA**

### **ADI**

**AUTOLIKIDAZIO BAKOITZA EREDU BATEAN AURKEZTU BEHAR DA, BERE ERREFERENTZIA ZENBAKIA DAUKALA.**

**AUTOLIKIDAZIO BAT BETE ETA INPRIMATU ONDOREN, BESTE BAT AURKEZTU BEHAR IZANEZ GERO, BESTE PDF BETEGARRI BAT IREKI BEHAR DA (EZIN DA BERRIZ IDATZI AURREKOAREN GAINEAN).**

### **SORTZAPEN DATA**

Dohaintza dokumentu pribatu baten bidez egin bada, sortzapen eguna dokumentua administrazio honi aurkezten zaion eguna da, Kode Zibileko 1.227. artikuluan azaltzen diren kasuetan izan ezik. Izan ere, kasu horietan sortzapen eguna hauetako bat da: dokumentua erregistro publikoan ezartzen edo inskribatzen den eguna, sinatzaileetako bat hil den eguna edo funtzionario publiko bati bere lanbidea dela eta eman zaion eguna.

### **DOHAINZA HARTZAILEA**

Dohaintza hartzailea (dirua jasotzen duena) zergaren subjektu pasiboa da (zerga kuota ordaindu behar du). Eredu honetan beraren datuak adierazi behar dira.

**Taldea:** lauki honetan zehaztu behar da zer taldetakoa den dohaintza hartzailea dohaintza hartzailearekin daukan ahaidetasun erlazioaren arabera, ODZFAak 22. artikuluan ezartzen duenarekin eta ondoko taulan agertzen denarekin bat etorritik.

**Ahaidetasuna:** lauki honetan zehaztu behar da zer ahaidetasun erlazio daukan dohaintza hartzaileak dohaintza emailearekin (adibidez: semea, aita, izeba...).

Hona ahaidetasun taldeak:

0 TALDEA	Ezkontidea, izatezko bikoteko kidea (Eusko Legebiltzarraren 2/2003 Legearekin bat etorritik eratu), aurrekoa, ondorengoa (Ezkontidea, izatezko bikoteko kidea, semea/alaba, biloba, aita, ama, aitona/amona...)
1 TALDEA	Bigarren eta hirugarren graduko odol ahaideak eta ezkontza bidezko aurrekoak eta ondorengoa. Anaia/neba, ahizpa/arreba, iloba, aitagarreba/amagarreba, erraina/suhia, ezkontideetako baten ondorengoa.
2 TALDEA	Gainerako ahaideak edo ahaidetasun erlaziorik gabekoak. Ezkontidearen lehengusua/lehengusina, iloba, ahaidetasun erlaziorik gabekoak

**Jaiotza data:** ondasun edo eskubide baten gozamina edo jabetza soila eskualdatzen denean zehaztu behar da.

**% 33ko minusbalioa edo handiagoa:** dohaintza hartzaileak % 33ko desgaitasuna edo handiagoa edo I. graduko mendekotasuna edo handiagoa onartuta badauka, lauki hau markatu behar da.

**Arabako egoiliarra:** dohaintza hartzailearen ohiko egoitza Araban egon bada sortzapen egunean, BAI laukia markatu behar da; bestela, EZ laukia.

**Egoitza EAEn azken 5 urteetan:** sortzapen egunaren aurreko 5 urteetan dohaintza hartzailearen egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan egon bada egun gehienetan, BAI laukia markatu behar da.

EZ laukia markatuz gero, **jatorrizko autonomia erkidegoa** eta **aurreko ondarea** zehaztu behar dira.

### DOHAINZA EMAILEA

Hemen dohaintza emailearen datu pertsonalak adierazi behar dira (dohaintza modura jabetza soila emanez gero, jaioteguna ez da eman behar).

### AUTOLIKIDAZIOAREN DATU TEKNIKOAK

**Irabazpidezko balio aitortuen batura:** ondasun higigarrien eta higiezin zerrendan agertzen diren irabazpidezko balioen batura jarri behar da.

**Balio pribatibo aitortuen batura:** ondasun higigarrien eta higiezin zerrendan agertzen diren balio pribatiboen batura jarri behar da.

**Aurreko dohaintzen metaketa:** aurreko 3 urteetan dohaintza emaile berak egindako dohaintzen guztirako zenbatekoa adierazi behar da.

**Tarifa zk. // Tasa finkoa:** zergaren araudian kuota kalkulatzeko ezarritako likidazio erregelen araberrako tarifa zenbakia edo tasa finkoa adierazi behar da.

Taldea	Tarifa / Tasa finkoa
0	% 1,5
1	II
2	III
Dohaintza hartzaileak % 33ko desgaitasuna edo mendekotasuna (gradu guztiak) eta ez dago 0 taldean.	I

**Kuota osoa:** Tarifa edo tasa finkoa likidazio oinarriari aplikatzearen emaitzako zenbatekoa ezarri behar da. Indarreko tarifak eta horiek aplikatzeko modua esteka honetako gidan azaltzen dira: [Guía del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones](#), (22. orrialdea eta hurrengoak)

Kuota kalkulatzeko oinordetza eta dohaintzen gaineko zergari buruzko informazio orokorraren orrian dagoen kalkulagailua erabil daiteke.

**Zerga kuota:** kuota osoa izaten da, beste autonomia erkidego bateko araudia aplikatu behar den kasuetan izan ezik (horrelakoetan koefiziente biderkatzailea aplikatu behar izaten da).

**Kenkaria nazioarteko zergapetze bikoitzarengatik:** bidezko kenkaria adierazi behar da, zergaren arauak 25. artikuluan xedatzen duena aplikatuz.

**Kenkaria aurreko kuotengatik:** aurretik ordaindutako zerga kuoten guztirako zenbatekoa adierazi behar da (07. laukian metatutakoa).

**Sartu beharrekoa, guztira / Zerga zorra, guztira:** hau kalkulatzeko aurreko kuoten kenkaria kendu behar da zerga kuotatik (epe kanpo aurkezteagatik errenergua eta interesak aplikatu behar izanez gero, zerga kuotari batu behar zaizkio).